

Harremanetarako:  
harpidetza@hitza.info  
902 82 02 01



Harpidedun guztien artean  
Juansarenea landetxean  
asteburuko egonaldia  
zozketatuko dugu!

Asteartea, 2014-02-25

**hitza** info  
Donostiako informazioa euskaraz

ZUREA DA HITZA

Nabigazioa ☰

## Haritzalde Egiako parkea zaintzeko neurri zehatzak eskatu dizkio udalari

by **Nerea Lizarralde** on 2014/02/20 in **GIZARTEA**

**Parkeko biodibertsitatea babesteko plan bat diseinatu eta abian jartzeko beharra azpimarratu du elkarteak.**

Arauen urraketak saihesteko zaintza zerbitzua ezartzea; animalien babesleku eta ugalketa eremuak ondo babestea; eta parkeko animalien biziraupena arriskuan jartzen dituzten kanpoko espezieak kontrolatzeko neurriak hartzea. Haritzalde Naturzaleen Elkarteak Egiako parkearen egoera hobetzeko udalari eskatu dizkion neurriak dira hauek.



Orain arte egindako ikerketa eta argitalpenak aintzat hartzea, eta parkeko biodibertsitatea babesteko estrategia edo plan bat diseinatu eta abian jartzeko ere eskatu dio. Azken hogeitun urte hauetan Haritzalde Egiako parkea zaintzeko hainbat proposamen plazaratu duela azaldu du, *Cristina Enea-Gladys Parkea* (2009) liburuan esaterako. Argitalpen honetan parkearen historia, flora eta fauna aberatsaren berri eman zuen Joseba Gurutz de Vicente egitarra.

Aranzadi Zientzia Elkarteak ere, udalak eskatuta, parkearen biodibertsitatearen egoerari buruzko txosten bat egin zuela ekarri du gogora Haritzalde, eta azterketa hartan agerian geratu zirela parkean premiazkoak ziren lanak: "Aranzadik hainbat neurri proposatu zituen, hezeguneak berreskuratzea eta berriak sortzea besteak beste, horiek guztiak ez dira egin". Txosten hartan "dirutza" gastatu arren, bertan proposatutakoa "tiradera batean galduta" geratu dela salatu du.

2006. urtean udalak parkean egindako lanek kalte handia eragin zutela azaldu du Haritzalde. Zenbait eremu artifizializatu, putzuak lehortu, urmaela itxuraz aldatu eta zenbait gunetako landaredia

deuseztu zutela salatu du. Ordutik egoera ez dela hobetu uste du Haritzalde: “Katu kopurua hazi egin da eta bertako hezgaiztiak arriskuan jarri dituzte; herritar askok ez dute inolako errespeturik landare eta animaliekiko; kanpoko espezie arrotzak hazi egin dira -Floridako dortokak eta arrain gorriak-, bizikletak baimenduta ez dauden bideetaik pasatzen dira; etaxakurrak aske eta kontrolik gabe egoten dira hainbat gunetan”.

Elkarteak “aspaldi” egindako eskaera bat jarri du mahai gainean: “Hiriko parke handientzat zaintza berezia ezartzea, eta parkezainaren irudia berreskuratzea. Are gehiago, ingurumen alorrean eta bereziki gure ondare naturalaren babeserako, udaltzaingoan talde edo “unitate berdea” sortzea”. Halaber, parke handietan txakurrak sartzearen kontra daudela azaldu du, zaintzarik ez dagoelako eta bertako espezieentzat arriskutsuak direlako.

## 📌 Cristina Enea, Egiako parkea, Haritzalde, natura, zuhaitzak

◀ Pasai Donibanen lehiatuko da Donostiarra

Asteburua Dokan: Indie Party, Maika Makovskiren kontzertua eta klown ikuskizun bat ▶

## Profile


Sign in with Twitter Sign in with Facebook

or

Name

Email  Not published

Website



CAPTCHA Code \*

Post It